

Californiako Eskual Herria



Xipri **A**rbelbide*

Zenbait urte iraun duen euskarazko lehen astekaria “Californiako Eskual Herria” da. Jean Pierre Goytino Ainhoarrak sortu zuen Los Angelesean 1893an eta eskutan daukagun azken zenbakia 1898ko otsailaren 25ekoa da. Bainan ez da arrazoinik uste izaiteko azkena zenik. Larunbat guzietz agertzen zen, oso osoa euskaraz, publizitatea ere bai. Berak erraten duenaz, 2.000ko bat aletan saltzen zen, ez bakarrik Kalifornian baina Ipar eta Hego Ameriketako erresuma gehienetan, bai eta Euskal Herrian. Ameriketako eta Europako berri emaiten du eta bestalde bertso asko agertzen, ala orduan ezagunak ziren bertsularienak, ala Ameriketako Euskaldunek idatziak.

Giltz-Hitzak: Californiako Eskual Herria. Euskarazko kaseta. Astekari. Jean Pierre Goytino. Los Angeles. Publizitatea euskaraz. Amerika.


On discute sur la durée du premier hebdomadaire en euskara, celui intitulé “Californiako Eskual Herria”. Il fut fondé par le ressortissant d’Ainhoa, Jean-Pierre Goytino, à Los Angeles en 1893, et le dernier numéro que nous possédons est celui qui correspond au 25 février 1898. Mais il n’existe aucune raison qui nous permette de penser que ce soit le dernier. Il était publié tous les samedis et était totalement rédigé en euskara, y compris la publicité. Selon son fondateur, il s’en vendait environ 2.000 exemplaires, non seulement en Californie, mais aussi dans la plus grande partie des pays d’Amérique du Nord et du Sud et en Euskal Herria. Il donnait des nouvelles d’Amérique et d’Europe et, d’autre part, publiait de nombreux vers, aussi bien de bertsolaris connus de l’époque qu’écrits par les basques d’Amérique.

Mots Clés: Californiako Eskual Herria. Publication en euskara. Hebdomadaire. Jean-Pierre Goytino. Los Angeles. Publicité en euskara. Amérique.

Se discute la duración del primer semanario en euskara, el titulado “Californiako Eskual Herria”. Lo fundó el ainhoarra Jean Pierre Goytino en Los Angeles en 1893, y el último número que tenemos a mano es el correspondiente al 25 de febrero de 1898. Pero no existe ninguna razón que nos haga pensar que sea el último. Se publicaba todos los sábados y estaba totalmente redactado en euskara, incluida la publicidad. Según cuenta su fundador, vendía alrededor de 2.000 ejemplares, no sólo en California sino en la mayoría de los países de Norte y Sudamérica y en Euskal Herria. Da cuenta de las noticias de América y Europa y, por otra parte, publica numerosos versos, tanto de bertsolaris conocidos de la época como escritos por los vascos de América.

Palabras Clave: Eskual Herria de California. Publicación en euskara. Semanario. Jean Pierre Goytino. Los Angeles. Publicidad en euskara. America.

* Apezetxea. Salie Karrika, 14. 64240 Aiherra.



Euskarazko lehen aste-
karia ez da **Esculduna**.
Alde batetik elebiduna zen
eta bestalde, lehenago
agertu dira, eta euskara
hutsez, Xahoren **Uscual
Herrico Gazeta** bi aldiz argi-
taratua eta geroxago, bai-
nan hau Kalifornian,
Bizkailuz abokatak 1885ko
abendoaren 24an Los
Angelesetan ateraia,
Esculdun Gazeta. Honek
ere bi ale baizik ez zituen
ukan.

Los Angelesetan ager-
tu "**Californiako Eskual
Herria**" da euskara hutsez
iraun duen lehen astekaria.
1993ko uztailaren 15an
hasi zen eta Parisko
Bibliothèque Nationalean
98ko otsailaren 25 arte.
Azken zenbaki honetan

deusek ez du erakusten azken zenbakia denik. Pentsatzeko da luzeago iraun deula. Ez dakigu noiz arte. Astekariaren beste kolekziorik ez izanez ez dugu jakinen, beste agerkari batek ez badu nonbeit erraten "Kaliforniako Eskual Herria-", bere azken zenbakia agerturik, itzali dela.

Gaur egun "Parisko Bibliothèque Nationale" delakoan den Kolekzio hori Antoine Abadiarena da¹. Honek bere arpidetza igorri zuen 1893ko abendoaren 21an², ordu arte agertu zenbaki guziak eskatuz. Gutuna ingelesez idatzi zuen. Antonio Abadia 1897an hil zen eta beraz gure kolekzio gelditzen da honen harpidetza gelditzearekin.

Esquin eta ezker ezagutuak diren kasetaren beste kolekzioak, Pariskoaren fotokopia eta mikrofilmak baizik ez dira. Parisko liburutegian falta dira zenbaki zenbeit han hemenka. Archives Nationales-etan beste kolekzioan falta diren bi zenbaki ikusi ditugu, 97-ko urrikoak, hauek ere Abadiarenak ziren eta hain zuzen Bibliothèque Nationaleko kolekzioan falta dira.

Kaseta hori egin zuen **Jean Pierre Goytinok**. Ainhoan sortua zen 1860ko uztailaren 22an mugazain familia batetan. Arnaud, aita, Larrañen sortua 1823ko irailaren 10an, muga zaina izana, "préposé des douanes" 1843tik

1. BN-ko Poitelon jaunak errana.

2. CEH 94.I.6/2.

1877 arte³, Julie Lapêtre Biarno Urdoseko jostuna, bere lehen emazteaz alar-gundu eta 1858an, bigarren ezkontzaz hartu zuen 1859ko hazaraoaren 11an, Gracieusee Etcheverry Kanbo Graxitaineko zurgina eta Marie Elissethen alaba. 13 herritan ibili zen mugazain, Irulegitik Kanborat.

Ez zen gradotan hupatu zeren eta behin baino gehiagotan gaztigatua izan zen. Aldi bat aintzindari baten alderat behar den errespetua ez izanik (mehatxatu zuen!) eta beste aldi batez, bere lagun bat zanpatu eta, bidearen gainean utzirik gau guzia. Gainera erdi elkorra izanez azken urteetan, ez zen gehiago gai gauaz kontrabandisten barrandan egoiteko.

Arnaud-ren aita ere mugazaina zen, Catherine Bonneu Aretakoarekin ezkondua. Baigorriin erahil zuen kontrabandista talde batek 1833an.

Horrelakoak gertatzen ziren garai haietan. Aita horrek anaia bat galdua zuen itoa bere mugazain lanetan ari zelarik.

Arnaud bera, Jean Pierre bere semearekin bidean ibilki zela Ainhoa eta Kanboa artean, zibilez jauntzia, beste bi gizonekin topo egin zuen. Kontrabandistak zirela oharturik aitak erran zuen mugazaina zela eta semearen laguntzarekin bati lotu zitzaion, bestea ihesi joaten zela. Eskuak uhal batekin estekaturik zeramaten beste bi gizon etorri zirelarik, kontrabandista libratzeko, Goytino zanpaturik eta zauriturik uzten zutela bere semearekin⁴.

Frères des écoles chrétiennes fraile elkartean sartu zen 1874ko otsailaren 16an eta sotana jauntzi maiatzaren 24an 14 urteak betetzekoak zituelarik. Ordu arte ere eskolan ibilia zitekeen nonbeit zeren eta bere aita kontrabandistek jo zutelarik, oporretan zen. “Frère Lupillien” izen arraroa eman zioten⁵.

Hamabost urte gabe eskola emaiten hasi zen Ortesen, haur ttipiekin. Gero urte guzietan tokiz aldatu zuten: Tarbes, Baiona, Hazparne, Bagnères, Pabe, berriz Bagnères eta azkenik Hazparne.

Breveta pasatu zuen Tolosan 1881ko urriaren 1an. Hartze ona zukeen zeren eta postu inportanteak eman zizkioten gazterik eta iduriz bere breveta prestatu zuen, denbora berean irakasle izanez. Dena den, berak dazkien arrazoinen gatik erabaki zuen frailegoa uztea. Bokaziorik ez zuela dio fraile ordenako paperrak. Frailetan egon 9 urteetan ez zuen behin ere boturik egin. 1883ko uztailaren 10-an utzi zuen frailegoa. Frailetzeko fitxak ematen du: “Pas de vocation” “Bokaziorik ez” gehiagoko xehetasunik gabe. Bizkitartean, iduriz berak erabaki zuen joatea. Ez zuten Frailek kanporatu.

3. ADPA 1216 W/E1 1216.

4. ADPA 5P 479.

5. ADPA 1 T 71.

1883ko martxoaren 15an gutun bat igorria zion departamenduko Akademia Inspektoreari, irakasle postu bat eskatuz eskola publikoetan, ahalaz Euskal Herrian. Galde bera egin zion prefetari.

Errepostua igorri zioten orduan Kanbon bizi zuen aitaren etxera, Hazparneko fraileak ez zituen deusetaz mesfida. Semeak egin galdearen jakinean zen aita eta hitz bat errana zion inspektoreari semearen alde.

Zuraideko eskolara igorri zuten. 44 haur bazituen, ttipienetik haundienera, denak klase bakar batean. Horietarik 12 falta ziren inspektoreak lehen bisita egin ziolarik 1884ko otsailaren 21an. Irakasle ona zela dio honek bere txostenean: “L'école est en progrès sur l'année dernière. Le nouvel instituteur est intelligent et actif. Il organise convenablement sa classe qui en avait singulièrement besoin. Il vient aussi un plus grand nombre d'élèves et ils sont plus réguliers. Ce qui manque, c'est le local.”

Alabainan, eskola egiten zuten eliza kalustrapeko gela batetan. Jostalekoa: hil herriak. Beste urte batez inspektoreak dio eskola lanjerosa dela, eliza dorreak ez daukalakotz parraiorik.

Ondoko urtean aferak mintzen hasten dira. Inspektoreak dio: “*Ne m'inspire qu'une médiocre confiance. Il a des relations intimes avec le curé, le maire réactionnaire, les soeurs de la Croix. Il est en correspondance avec les frères d'Hasparren...* Néanmoins il se dit républicain. Il a des ennemis à Souraide, en particulier son prédécesseur M. Elissamboure. Comme instituteur il paraît plein de bonne volonté fait beaucoup de promesses et a déjà réalisé quelques progrès. Le nombre des élèves présents était si peu considérable qu'il m'a été difficile de connaître exactement la valeur de la classe (30 mutikoetarik 12 ziren hor).

(...) M. Goytino sait à quoi s'en tenir. S'il tient à rester à Souraide, il n'y restera que s'il organise une bonne école.”

1884an ikusi dugu aintzineko errientak baino hobeki ari zela eta orai, hau etsai daukala leporatzen diote. Akademiak azpimarratu ditu lehen lerroak. Pedagogia aldetik haurrak aintzina doatzila dio. Goytinoren hutsa, ideologikoa da.

Hirugarren urtean oraino okerrago: “Les résultats généraux sont tout à fait insuffisants. Les enfants qui ont déjà trois années de scolarité n'entendent pas encore le français vulgaire et ne comprennent pas ce qu'ils lisent, ni ce qu'ils récitent (...) Aucun procédé intelligent. (...) M. Goytino est un très médiocre instituteur.”

Eskola ainitzetan haurrek ez zuten ulertzen, ez zer irakurtzen zuten, ez eta gogoz ikasten zutena. Beltzuntzeko biskontek Hazparne aldeko eskolatan egin itzulia hor dugu lekuko.

Martin Elissamburu Goytinoren aintzineko errientaren inspeksioa egin zuen batez, inspektoreak zioen:

*Langue française faible ou nulle. Les familles les envoient en vue de l'instruction religieuse. Dans de telles conditions il est bien difficile, sinon impossible d'obtenir des résultats tant soit peu satisfaisants*⁶.

Haur guziak klase berean izanez, ez da harritzeko ez badu bestek baino balentria handiagorik egin. Zinez errient bezela zena ez ona, eta orduan, zer gatik ez zen lehen urtean bezen ongi ari izan ondokoetan? Ala partida dutena ez ote liteke gorri bilakatuko zela uste izan eta ez zela hala gertatu? Ideologia gorago erran dugun bezela.

Aintzineko urtean egin mehatxua gauzatu zuten 1886an: tokiz aldatu eta Itsasuko Latsia auzoaldera igorri zuten “en disgrace”. Hor ere klase bakar bat izanen du 25 mutiko eta 7 neskarekin. Berehala egin zioten inspeizioa eta txostena txarra izan zuen “La bonne volonté fait défaut.”

Dena den abendoaren 31an bere demisioa igorri zion inspekturrari. Jaki-na baitzuen eskolatik kanpo emaiterat ari zirela.

Arrazoina? Hona zer zioen prefetak “A dans une lettre rédigée par lui mais signée par le maire de Souraïde, porté des accusations mensongères contre M. Bétachet son successeur dans cette commune et formulé des injures contre son chef immédiat.”

Gutun hori ez dugu eskutan ukan, bainan bestalde ikusi dugu, baizik eta auzapezari izenpe arazi ziola, delako gezurrezko akusazioen berri eman gabe: auzapezak ere ez zekikeen irakurtzen! Kontseiluak protesta bat egin zuen Goytinoren tokiz aldatzearen kontra.

Le Républicain Bayonnais gorrien kasetak artikulu bat osoa badu errient hontaz: “Goytino et son confrère Elissabide (auzapeza) ont toujours été les détracteurs les plus acharnés du gouvernement républicain dans la commune de Souraïde. Ces deux jésuites ont longtemps trompé les républicains par leurs allures hypocrites. Dans leur œuvre de propagande réactionnaire ils sont aidés par un riche propriétaire espagnol qui ferait mieux, c'est un aversissement charitable que nous lui donnons, de ne pas se mêler à nos affaires politiques. (...)

L'ex instituteur de Souraïde a été l'objet d'un déplacement qui ne constitue pas à notre avis, un châtement suffisant. On aurait dû le révoquer brutalement”⁷.

Ez ote zen hori Goytinoren gaitza? Eskola publikoan sartzean hitz eman zuen gorriak lagunduko zituela eta xuriak zituen lagundu. Inspektoreak idatzi gutun batetan irakurtu dugu ere Eliçabide auzapezak nahiko zukeela bere alaba errientarekin eskont zedien. Eta menturaz Goytinori ere neskatoa gus-

6. ADPA IT 66.

7. Le Républicain Bayonnais 10.12.1886.

tatzen! Ez liteke harritzeko amodioz bazen, kolore politikoz aldatu. Behin ere gorritu bazen!

Zeren eta bere aitak Etcheverry deputatuari dei egina zion jadanik mugazain postuz aldatzeko. Eta hau ez zen gorria!

Latsiako eskola utzirik Goytino Ameriketara joan zen. Joaitekotan zela entzunik, inspektorak jakin arazi zuen armadako erreserban zela eta beraz begitan izan behar zela, ez zela kontrabandan joaitera utzi behar. Bainan joan zen 87ko lehen egunetan hain segur, eta kontrabandan joaten ziren gehienek egiten zuten bezela, Pasaian hartu zukeen untzia.

Urteak berantago, nahiz zenbeit mila kilometretan den, gogoan du beti gertatu zaiona eta hona zer idazten duen behin “Errientak” titulu pean, sortu berria zuen **Eskual Herria** bere kasetan: “Urthe guziez bezela Eskual Herriko errient gaicho batzu ibili dire aurthergo bakhantzetan, harat honat, tarrapataka!... Ez da erretch erraitea bainan estakuru ergelena aski da, oraiko egunean, jaun errient baten tokiz kanbiarazteko. Hortakotz, dohakabeak, badohatzi herriz herri, tokiz toki, jakin gabe erdietan zertako kanbiatzen dituzten beren lekhu xaharretik (...) Mr. Ahetz Etchebers Donibane Ziburuko errient errespeta-garria eta jakintsuna igorria izan da (bortxaz segur) Ezpeletako haur baliosen eskolatzerat. (...) Mr Bidabe Olhetako errienta igorri dute Villenave aiphatu Kaskoidegiko herri txar hortarat. Zer atsegin handia Eskualdun batentzat. (...) Zer harat hunatak batere beharrik gabe eta zer gastu behar gabeak gaixo Errient horiendako! Nos sympathies, Messieurs les Instituteurs déplacés”⁸.

Ameriketara joan aintzin erran dezagun Zuraidek ez zuela deus irabazi Betachet batek hartu zuelarik Goytinoren tokia. Bi urte gabe Latsiarat igorri zuten hau ere eta 1892an irakaslegotik kanpo eman, zorrek itoa zelakotz, (eta ez beharrezko despendioetan! Hala nola urrezko ordulari bat erosia zuen Baionan eta ez zuen pagatzen!) eta erakasle txarra zelakotz “Monsieur Betachet est un bien triste instituteur dans le rapport du zèle professionnel. (...) Il néglige complètement ses devoirs professionnels.” dio 1888an inspektoreak egin txostenak.

AMERIKETAN

Lehen urteetan egin zuenetik gauza bat baizik ez dakigu: frantsesezko kaseta baten buru zain zela: **Le Progrès**, 1886an irian⁹. Euskarazkoa sortzearekin, utzi zuen frantsesezkoa: “Berriketari honen moldatzaileak errentatu du bere paper frantsesa “**Le Progrès**”, eskualdun berriketariaz bakarrik artha hartzeko”¹⁰. Errentatu baldin badu, jabea zitekeen, nahiz iduriz beste norbei-

8. CEH 94.XII.1/1.

9. CEH 1893.XI.4/1.

10. CEH 1894.IV.28/2.

tek zortua zuen kaseta hori. Ez zen Los Angelesetako kaseta bakarra frantsesez. Bestalde ere errana zaiku “Le Progrès horretan erredaktore” zela, auziak izan zituela hor idatzi artikulu batzuen gatik⁹.

Goytinoz gehiago jakiteko euskarazko astekaria sortu arte egon behar dugu. Bere zuzenbidea ezagutzen dugu kasetan agertzen baita: “330 New High Street” Los Angeles. 1897ko maiatzetik harat Aliso karrikaren 312an jarri zen¹¹. Hil zelarik 800 Summit Avenue bizi zen¹².

1893ko abendoan edo 1894ko urtarrilean notario onartua izan dela errana zaiku¹³. Eta bere notario publizitatea agertzen du kasetan. 1894ko martxoan bere kondadoan izan 1243 notario agerietarik 237 berak eginak ziren, bostetarik bat beraz¹⁴.

“Compagnie Bordelaise” garraio enpresare-n ordezkari nagusia zen Kaliforniarako¹⁵. Itzultzaile bezela deitua zen auzitegietara Euskaldunak zirelarik auziperatuak, hala nola Eñaut Carricaburu eta Michel Erreca akusatuak direlarik beren ardiek zuhaitz ttipi zenbeit janik gobernamentuko lurretan¹⁶.

Norbeiten ontasunak estimatzeko, esperta bezela hartua da: Eñaut Sorzabal zenaren ontasunak estimatzeko deitua izan zen Martin Uharriet eta Marius Meyere batekin¹⁷.

Amerikanoentzat norbeit zelako marka, Los Angelesetako Errepublikanoek beren konbentzionaletako idazkari bezela izendatu zuten 1894ko abendoaren 1an¹⁸.

Hobby bat bazuen: zakurrak. 1894an, San Frantzizkoko erakusketan 600 zakurretatik lehen saria eraman zuen Mastiff Ingles arrazan 180 libera pizu zuen Fanny II bere zakurrak¹⁹. Bere emaztea eta alabarekin joana zen erakusketa hortara. Ondoko urtean ere lehen sari bat eraman zuen Los Angelesetan aldi honetan, 10 hilabetetan 134 libera pizu zuen Duke of Camborekin²⁰.

11. CEH 1897.5.8/1.

12. Ehorzketa ageritik.

13. CEH 93.XI.4/1.

14. CEH 94.IV.28/2.

15. CEH 93.XII.16/1.

16. CEH 95.IV.18/2.

17. CEH 94.IV.18/2.

18. CEH 94.XI.3/2.

19. CEH 94.IV.24/2.

20. CEH 95.IV.20/2.

Emaztea Constine deitzen zen, 1865an sortua Kalifornian, aita Frantzia-koa zuelarik, ama aldiz Kalifornian sortua. 1900ko jende kondaketan ikusten dugu bere alaba 1890an sortua zela bainan ez zen berekin bizi. Aldiz etxean bazituzten bi iloba eta hiru sehi: Emile Boquet frantsesa, Emma Larraguibel Kalifornian sortua bainan aita Frantsesa zuena, eta Grace²¹. Nor ote ziren bere odoan ehortziak izanak diren Cathy eta Nora?

Officier des palmés académiques izendatua izan zen 1895ko uztailaren 18an, hemengo deputatuek eskaturik, zinta ubela eramateko eskubidearekin. **Le Progrès** bere kasetan ohiak dio: “Les députés des Basses Pyrénées, soucieux des intérêts de leurs électeurs ont été frappés des services immenses rendus aux Basques dans les deux Amériques par le vaillant petit journal **Eskual Herria** fondé par Monsieur Jean Pierre Goytino il y a deux ans à peine, et le seul journal exclusivement publié en Basque dans l’univers²²”.

Ironiaren berri ere badakite zeren eta segitzen dute erranez: “Mais le journal Basque **Eskual Herria** n’était pas le seul titre de M.J. P. Goytino aux palmés académiques. Pendant qu’il a été rédacteur du PROGRES, il a rendu dans ce pays maints services au gouvernement Français, et avant de quitter la France il y a sept ou huit ans, il avait rempli avec *distinction* différentes missions pédagogiques. C’était un *professeur remarqué*, et ses anciens confrères en France, ne manqueront pas de se sentir honorés par la distinction qui vient de lui être accordée.” Guk dugu azpimarratu. “Misio” horien hatzik ez dugu nihon ikusi. Ez dugu bere izena ikusi Hezkuntza Nazionaleko zerrendan, ez baita harritzeko. Iduriz kanpo arazoetako ministeritzatik etorri zaio medela, bainan ministeritza honen artxibotan ere ez dugu Goytinoren izenik ikusi.

Nor ote litezke beren burua ohoratua sendituko zuten beste irakasleak? Betachet, Zuraiden Goytinoren segida hartu zuena? Elissamboure berak ordaindua herri hortan? Ala kanpo eman duen inspektorea, baizik eta irakasle txarra zela?

Inspekzio txostenetan inspektoreak zioen irakasle arrunta zela eta hona non orai irakasleen dekorazioa ematen dioten! “Le Progrès” kasetak idazten du “Avant de quitter la France il avait rempli avec distinction différentes missions pédagogiques. C’était un professeur remarqué”. Badakigu ez dela holakorik izan, frailegoa utzi eta hiru urte pasa baizik ez baita egon irakaskuntzan, eta errient xoil bezela.

Eskualduna hemengo xurien kasetak atakatu zuen, gero ikusiko dugun bezela. Ondorioz **Le Réveil** gorrien astekaria zuen bere erreferentzia hemengo berri emaitako. Errepublikaren alde agertu zen, Amerikano guziak bezela, han ez baitzen errepublikaz besterik. Pentsatzeko da, ororen buru, hemen

21. 1900ko jende kondaketako paperretik.

22. CEH 95.VIII.10.- L’Avenir 1895.VII.25.

zelarik kontra zituen gorri horiek berak zaizkiola alde agertu Amerikatara joan eta. Bainan bururatzean aipatuko dugu puntu hau xehetasun gehiagorekin.

Familiatik jakin dugu dirua bazuela: behin Kanborat etorri zelararik, urrezko zerbeit eman zien kontseiluko jaun guzieri. Baionako diosesako agerkariak salatzen dauku urrezko erraztun bat ekarri ziola Gieure apezikuari: “Californiako Eskualdunek Eskualdunen Apezpikuari” grabaturik. Erraztun hori Saint Pierre Milafrangarrari eman izan zitzaion apezpikutu zelaririk²³. Erraztun horrek 5.000F balio zuen!

Erraztunaren berri emaiten huna zer idazten duen astekariak “M. Goytino, riche propriétaire de Los Angeles et un des catholiques les plus en vue de Californie”²⁴.

1920-ko apirilaren 4an ehortzia izanan da “Calvary cemetery” hil herritan, E sekzioan, 2143. saileko 6garren hobian, Nora eta Cathyren artean²⁵. Kurutzarik ere ez du²⁶, bere kasetan hoin artoski gomendatzen zelararik Euskalduneri beren herritarrak ohorezki ehortz zitzaizen. Dirurik gabe hil zen, edo prohibizio garaian, alkoolarekin hartua izan zelakotz, edo batzu eta besteak baliatu zirelakotz haren diruaz, entzun dugunaz. 1907 ondoan da erori peko errekarara.

Kaseta

Euskara ongi bazekien ez baititake gauza bera erran Bizkailuzen kasetaz. Hamar bat aldiz bere bertsuak agertzen dira astekarian.

Dena den kaseta sortu zuen 1893ko uztailaren 15an eta laster izan zuen arrakasta. Hona zer idazten duen lehen zenbakian:

“Bertze nazione guziek beren gazetak badituzte eta gu hainbertze garelarik hedatuak Pazifikoko kostan, ez da justu baizik junta giten denak berriketari baten medioz. Gure intresak, hemen bederen, igualtsuak dira eta gure mintzo ederraren medioz bat bertzen berriak jakiten ahal ditugu gure lekutik higitu gabe.

Paper hau agertuko da astean behin. Bihotzaren erditik errekomandantzen dugu Herritar guzieri; laguntza arin batekin izanen dugu laster berriketari sano bat, egiazki “eskualduna” bai manerez, bai sendimenduz.

Gure indar guzia heldu da gure mintzo sakratutik. Gure eskuara ederrari jarraikitzen giren denboran, gure arraza joanen da hedatuz eta emendatuz bazter guzietan.

23. Bulletin religieux du diocèse de Bayonne VII.1930, 382 orrialdean.

24. Bulletin Religieux du diocèse de Bayonne 20.X.1907 386 orrialdean.

25. Hilherritako ageritik.

26. Minaberri anderearen lekukotasuna.

Sekulan baino gehiago gure hizkuntza zaharra hari da hedatzen mundu izkintetan.

Alemaniko hiri nagusian, Berlinen, Eskualdun paper bat **euskara** deitzen dena agertzen da hilabete guzietz. Europako sabant famatuenek izkribatzen dute paper hortan eta hekien artikulua leituko dira plazerrekin erresuma guzietan.

Ameriketari, gazeta eskualdunak sortzen ari dire, emeki bainan segurki. Habanako herritarrek badute beren "Laurak Bat", Espainiako lau probintzieta-ko semeen ohoretan.



Berriketari Eskualduna aguertzen dena Larumbate guzietz.

<p>1893 - N. 2</p>	<p>LOS ANGELES, CALIF., EZTAILAREN 22a 1893a</p>	<p>PREZIOA - 5 SOS</p>	
<p>Eskual-Herria. 10 Beigne, Newspaper for North California, Los Angeles, Calif. Published daily J. P. Gray, Editor. 120 New York Street</p> <p>Eskual-Herria. 10 Beigne, Newspaper for California, Los Angeles, Calif. Published daily J. P. Gray, Editor. 120 New York Street</p> <p>Eskual-Herria.</p>	<p>Eskulara!</p> <p>•• bakarra mairer' izakia urteko kanta. Hebezen bati zara mundu zabaleran. Yakinon hantuenek, adak E. K. H. Ten. Zuzenets inkuntan beren Beladetan.</p> <p>Es gure HERRIA, Zuzenets inkuntan Bata zuzenets inkuntan beren Beladetan. Bata hantuenek, adak E. K. H. Ten. Zuzenets inkuntan beren Beladetan.</p> <p>Han Hentekak.</p> <p>Parisen, Eztauren 18eko phesta arren trislaki pasatu da aurthon.</p>	<p>bora aphiur hantun, 300 presuna hantun diti eritasu hortarik egun guzietz. Gorpuzak elzar- teko ordez botatzen ditazte ak- siora eta bago guzietz yenda hitez estalia da Usaina heta aski da profetean hedatuko</p> <p>Yanchen orizugenean baziren Alexandria-ko hirian 85 presuna koloren yonk eta ospitalean, 10 bit diti eritasu hortarik egun hartan.</p> <p>Chiz beretik, 5 presuna hiri hira Toulon-oko hirian, egun beren.</p>	<p>ehortzako pormisionen. Luca Scischi aspaldi hantun bizi zen gure herrian. Buzten fortan eda bat. Abito dugu hantun ez dugu aste egun dela, aphiur unegatu bat zela. Fama hira eguna habebada, misera- bleak trislaki akhabatu da hira bogan hira bazia.</p> <p>Utz dezagun pasatzen Yin- kouren gustatza!</p> <p>Chicago-ko Exposition-en.</p> <p>Chicago-ko forin-tik herri guti yiri da aste hantun saltu aphiur.</p>

Bagira Kalifornian berean bortz mila Eskualdun bederen. Bortzetarik batek paper hau harturik **Californiako Eskual Herria** hedatuko da laster eta izanen da denbora laburrez berriketari aipatu bat.

Hortakotz galdatuz dugu herritar guzien laguntza eta borondate ona. Paper hau hedatuz ororatuko dugu gure sor leku maitea eta gure mintzo ohoragarria.

Edo hitz batez erraiteko, Eskualdunen eskuetan uzten dugu **Californiako Eskual Herria**. Non izanen ote da leku hobean?27

27. CEH 93.VII.15/1.

Los Angeles Herald-ek idatzi zuen ondoko astezkenean: Mr J.P Goytino, editor of *Le Progrès*, has commenced the publication of a paper in the Basque tongue, called **Eskual Herria**. Those who can read it will undoubtedly find it pungent and interesting, as it is difficult for Mr Goytino to be otherwise²⁸.

Ongi etorria egin zioten Los Angelesetako, "**Procupine**" deitu Ameriketako beste kaseta batek, Mekzikako "**El Monitor**"ek, Montevideoko "**L'Union Française**"-ek²⁹.

F. Jauffret Baionako apezpikuak konplimenduak egin zizkion: "Benedikatzin dut, bihotzaren erditik, **Californiako Eskual Herria**, harren egile-nausia eta abiatzailea, berriketariaren hedatzaile eta leitzale eskualdunak"³⁰.

"**Le journal de Saint Palais**", "**Le Réveil Basque**"³¹ eta "**Eskualduna**-"k gutienez aipatu zuten kaseta berria, nahiz azken honekin harremanak laster mindu ziren.

Haste hastetetik izan zuen arrakasta. Hona zer idazten duen hirugarren alean: Eskerrak bihurtzen ditugu gure herritar leitzaleeri eta manera berezi batez berriketari hunen hedatzaileeri. Ximixta bezela paper hau hedatu da, apur batez, bazter guzietan. Baginakien Eskualdunen laguntzak ez ginituela eskasik eginen, bainan ez ginuen amesten holako arta hartuko zutela gazeta huntaz.

Egun guziez galdeak galdearen gainean heldu dire bazter guzietarik. Iparretik eta iruzkitik, Mexikotik eta Estadosetarik, **Eskual Herriaren** adiskideak agertzen ari dire tropaka (...)

Gure aldetik ahal guziak eginen ditugu igortzeko aste guziez berriketari egiazko bat, berri hoberenez betea.

(...) Bizi bedi beti gure Eskuara maitea³².

Sortu eta sei hilabeteren buruan 1700 ale saltzen zituela dio eta urte bat barne 3000tara heltzeko esperantza duela³³.

Gure berriketari Eskualduna ederki barreatzen hari da bazter guzietan. Californian, Oregonen, Nevadan, Montanan, Arizonan, Texasen, Canadian, Mexicon, Kuban, Puerto Ricon, Brasilen, Txilen, Ekuadorren, Guatemalan, Urugay-n, Platan, Parguayan, eta ez gutienik Eskual Herrian, Frantzian, Espai-

28. CEH 93.7.22.2.

29. CEH 93.VII.29/2.

30. CEH 93.IX.2/1.

31. *Le Réveil Basque* 1893.X.28/1.

32. CEH 1893.7.29/1.

33. CEH 93.XII.23/1.

nian, Portugalen, Italian, Autrixian, Alemanian eta Inglaterran, gure paper ttipia hedatua da.

1893ko uztailaren 15an ager arazi ginituen lehen aldikotz 200 numero eta aste huntan jadanik 1.740etan goiti joanak gira.

Hola segituz lehen urtea akabatu gabe, **Californiako Eskual Herria**-k izanen ditu 3.000 (hirur mila) irakurtzaile, munduko lau izkinetan³⁴.

Urte baten buruan ez da 3.000tan bainan 2.000 "irakurle" dituela idazten du, "erosle" ulertu behar baititake³⁵.

Sortu eta bi hilabeteren buruan 1.000 ale igorri ditu Hego Ameriketara³⁶. Ez dakigu zer ondorio izan zuen kanpaina horrek ez bada "**L'Union Française**" Montevideoko kasetak idazten duena: "Jean Pierre Goytino veut par une intelligente propagande en étendre le domaine (de la langue Basque). C'est dans ce but qu'il a créé un petit journal purement en Basque et qui a déjà une grande circulation sur tous les points de l'Amérique. A Buenos Aires aussi il a eu un immense succès. Nous ne doutons pas qu'il en soit ici de même (...) Pour plus amples renseignements s'adresser à M. Amédée d'Arnaud administrateur de "**L'Union Française**- à Montévideo"³⁷.

Guatemalara beste 23 igorri zituen 1896an, H.E. batek eskaturik.

Bere dekorazioaren berri emaiten duen "L'Avenir" kasetak dio: "Cette publication est très répandue en Californie, au Mexique, au Chili et surtout dans les états de la Plata et l'Uruguay où les Basques sont en très grand nombre".

Hastapenean 40 x 28 neurrikoa zen. 7garren zenbakian handitzea aipatzen du jadanik:

"Gazeta handiago. Berriketari hau ezin sinetsizko maneran hedatzen hari da gure erresuman, Mexikon, eta Eskual Herrian. Hortakotz, ikusirikan zer arta gure Herriarrek hartzen duten paper huntaz, emendatuko dugu, heldu den urtarrilaren lehenean berriketari hunen izaria: orduan izanen da gazeta bat superra, berriz gorkatua eta ederki inprimatua³⁸.

Urte bereko urrian bigarren aldaketa:

"Aste huntan gure paperra ateratzen da atorra berri batekin. Letra ttipagoak dire eta gisa hortan berri gehiago emaiten ahal dugu. Heldu den urtatsetan

34. CEH 1893.XII.23/1.

35. KEH 93.IX.23/1.

36. CEH 1894.IX.15/2.

37. CEH 1893.VII.15/1.

38. CEH 1893.VIII.26/2.

emendatuko dugu paperraren izaria. Orduan Eskualdunek izanen dute berriketari handi eder bat”³⁹.

Bainan ez zuen urtats arte igurikatu. Hazaroan berean izan zen neurri aldaketa, 50 x 33 neurritara pasatzen zela:

“Egun, **Eskual Herria** agertzen da handitua eta emendatua. Kanbiamendu hori ez ginuen egin nahi heldu den urtatsetaraino, bainan sobera galde errezebitu dugu azken aste hautan, satisfakziona ttipi hori ez emaiteko gure irakurtzaile oneri. Horra beraz **Eskual Herria** munduko berriketari Eskualdun handiena!”

Segur gare paper hunen adixkide leialek estimatuko dituztela gure entsegu guziak eta gazeta hau hedatuko dutela beren inguruetan. Gure aldetik sakrifizio guziak eginen ditugu Eskuara paregabearen ohoretan, haltoki eta beldurrik gabe oihu egiten dugularik BIZI BEDI BETI ESQUAL HERRIA”⁴⁰.

Azken haunditzea izen aldaketarekin. 54 x 38 neurriak hartzen ditu. Bestalde, dudarik gabe, ez delakotz bakarrik Kaliforniakoa, “Eskual Herria” deituko da xoil xoilik. Denetan horrela deitzen zuten jadanik eta berak ere bere kasetara aipatzean, izen hori emaiten zion.

“Jainkoa eta Sor lekhua” lema agertzen da logo baten gainean, bi hitz horien artean. Tituluaren azpian lerro hau: “Berriketari Eskualduna argitaratzen dena California-n aste guziez”, horren partez zeukalarik aintzinean “Berriketari Eskualduna agertzen dena larumbate guziez.” Ez ote zen gehiago Larunbarekin agertu?

Zilo bat izanez gure kolekzioan maiatzaren 29tik agorrilaren 14 arte, ez dakigu noizkoa den aldaketa, ez eta zer idatzi zuen berrikuntza hortaz. Gure kolekzioan agorrilaren 26an hasten da aldaketa⁴¹.

Azken berritzea: telefona izanen du!⁴²

Korrespontsalak baditu kasetak: San Francisco-n (J.F. Ypharragirre), Tehachapin (J. Iribarne, jarraiki eta oparoena), Los Angelesetan (M. Ordoqui, D. Larronde eta D. Hiriart). Mezikan (Leon Costes, bainan Kadet Oxandabarrats Itsasuarrak askoz ere gehiago idazten du). Montevideon (Amédée d’Arnaud)⁴³.

39. CEH 1893.X.14/2.

40. CEH 1893.XI.14/1.

41. CEH 1897.VII.14.

42. CEH 1897.VIII.21/3.

43. CEH 1893.VII.15/1.

Erosleak aipatu ditugu, baina denek pagatzen zutena? Behin norbeitek idatzirik ez zuela gehiago eskuratzeko bere astekaria, errepostua ematen dio urte batez izan duela pagatu gabe⁴⁴. Funtsean askotan irakurtzen dugu:

“Paper hau errezebitu nahi ez duten herritarrek aski dute Postan errefusatzeari eta Postak berak abisatuko gaitu”⁴⁵.

3\$ balio zuen urtean, edo bat sei hilabeterentzat. 15 libera Frantzian.

Erran dezagun *osoki euskaraz* zela. Noizean behinka artikulu bat edo beste bada frantsesez edo espainolez, beste kasetak batetik hartua, hala nola bere dekorazioa aipatzeko edo Elizanbururen hiltzea. Baina oso beka. Inprimategian ez zekiten euskararik eta artetan huts batzu badira, baina ez izigarrikeriarik⁴⁶.

Lau orrialdeetarik biga hurbil *publizitatea* da. Hau ere gehiena euskaraz. Zenbeit badira ingelesez edo frantsesez, hain segur inprimarian bazutela kotz egina presta, hortarako behar zen beruna.

PUBLIZITATEA

Zer aipatzen du. Lehen orrialdean Iparraldeko, munduko eta Ameriketako berriak. Batzutan bertso zenbeit. Baina bertso gehienak azken bi orrialdeetan dira.

Azken bi orrialde hauek publizitatearentzat eginak dira, batzutan oso osoan. Zapeta saltzaile, abokat (Bizkailuz, Goldaracena Euskaldunak, eta beste), mediku (Dr. L. Zabala Eskualdun medikua, Parisen eta Madrilan errezebitua), tren konpainiak, ehorzle eta balsamatzaile konpainia bat, bankoak, asuramenduak, ardi saltzaile, azote, estalgi, kolier eta artzainek behar dituzten saltzaileak. Txirindula batek 27 dolar balio zuen, lau erretetako zaldi karrosak 25 eta josteko mekanikak 18,5. Pipatzearen kontrako erremedioa “No Tabac”, tabakoak bizia johan duela khearekin abisatzen zuen. Belokeko fraileak Oklahomarat joatearekin aipu da Pierre Qui Vire-ko erremedioa. Hortzetarik minez zeudenentzat ez zen hortz artatzailerik baina hortz ateratzailerik, “Max Wassman”! Gerorago “artatzaile” ere bilakatu zen.

Ostatuak: Los Angelesetako Hotel d’Europe, ostatu Eskualduna, F. Clavère eta P. Gouialhardourena, arno, zerbeza eta likur hoberenekin. Hôtel de l’Europe San Diegon, Pascal Etxeverry nagusi berriarekin; ganbara ederrak eta garbiak. Los Angelesetan: Eskualdun Ostata, nagusia zelarik Domingo Hiriart, kuzina frantsesa, arno ona eta ganbera garbiak hemen ere: ez zitez-

44. CEH 1895.XII.14/2.

45. CEH 1893.IX.2/2 lehen aldikotz eta gero, passim.

46. CEH 1894.II.17/2.

keen denetan hala! Buena Vista House nagusi zelarik D. Larronde, ohe onekin, dudarik gabe ez zirelaketz hala hotel guzietan! Beti hiri berean Maritonia Juan Poco-rena, gure hiriko etxe eskualdun ezagutuena. Piute Hotel Ostatu Eskualduna Tehachapin. Hotel des Pyrénées, J. Ordoki eta semea, errebote, ostatua eta kantinarekin, Herriko etxe Euskaldun zaharrena. Suak errea izanik errebotea berriz altxatu zuten: pareta taulazkoa zela jakiten dugu. New Lake House ostatu Eskualduna San Jose-n. San Franciscon J.F. Yparraguirre, bai eta Eskualdunen etxea, Angel Aranbururena; honen berezitasuna Ospitale frantsesaren ondoan dela.

Bakersfieldeko ostatu Euskaldun bakarra Iberia hôtél zen: egun oroz 30/40 Euskaldun baziren eta ainitz pilota partida, errebote bat baitzen⁴⁷.

P. Etxeverri eta Ca edari komertzantak, arno eta likur herrikoak eta estranjerrak, Kaliforniako arnoak. Botika Frantsesa (farmazia) Eskualdun botikarioa: Violé eta Lopizich, Los Angelesetan. Leon Escallier Hayward's Sheep Dip, ardién zarnaren kontrako erremedio hoberenaren saltzaile bakarra Kalifornia behearen.

Bidaiaz joan nahi dutenek jakiten dute Southern California Railway-ek New York-erateko bidea bestek baino egun bat gutiagoz egiten duela. Karro-sa konpainien publizitatea bazen oraino.

Orai hemen ere saltzen den Vick's erremedioaren publizitatea bazen ordukotzat. Beste erremediorik ere aipu da.

Etxera oroitzapenak igorri behar baitziren, potret ateratzaile frantsesak egiten zuen erreklama.

BERTSUAK

Azken bi orrialdeetan dira gehienetan bertsu eta kantuak: 250ez goiti kondatu ditugu. Badira kantu tradizionalak: Borthian Ahuzki, Eguntto batez, Argizagiak zerutik, Argia dela diozu, Xori errexiñula eta beste. Horietan badira eliza kantuak.

Badira Amerikanoek idatziak, hala nola Juan H. Aniotzbehere Saratarrak San Lucas-etik⁴⁸, Leon Costes Kanboarrak kasetaren lehen urtemugaren karietara⁴⁹ eta Kadet Oxandabarratsek 4 aldiz, biek Mekzikatik, Goytinok berak 9 aldiz, hala nola Kristobal Kolon Ameriketara joaitearen 4. mendeurrenaren karietara⁵⁰. Bertsu gehienak bertsulari eta olerkari ezagunenak dira,

47. CEH 1894.IV.7/2.

48. CEH 94.VII.7/1.

49. CEH 1894.VII.14/1.

50. CEH 1893.VIII.12/2.

Felipe Arrese Beitia, Jose, Ramon eta Rosario Artola, Manex Etxamendy, Karmelo Etxegaray, Harluxi, Antonio Arza, Felipe Casal Otaegi, Piarres Dibarrat, Elizanburu, Duvoisin Kapitaina, Otxalde, Frantzizko Lopez Alen, Zalduby, Yparaguirre.

Bertsu horietan badira lore jokoetan sarituak izan ondoan agertuak. Badira bi, berdin hiru aldiz agertu direnak, hala nola “Xoriñoa kaiolan” 94/1, 97/1 eta 97/5 edo “ene izar maitia” 93/9, 04/3, 97/2. Badira onak bainan ere metrikari errespetu handirik ematen ez diotenak eta Kadet Oxandabarratz pleñi da behin bereak ez agerturik⁵¹ bertsu bat xuxenik ez zuen beste kantua bat agertua zelarik. Hauk Hyppolite Pie deitu Hazpandar batenak ziren⁵².

Azken orrialdean liburu bat agertzen da hostokadan: “Ama Birjina Arrantzazukoa”, Juan Karlos Gerrarena, “Erroma eta Jerusalem” JB Ducq-ena, “Kontu zarrak” Karmelo Etxegarayena, “Ateka gaitzeko oihartzunak” JB Dasconague-rena, “Euskaldun” Aipatuak, Ferminena, “Eskualdunak” Hiribarrenena.

AMERIKANOEN BERRIAK

Bainan kasetaren arrakasta egin dute Amerikanoen berriek. Badira berri-
ketari oparoak hala nola Tehaxipiko Manex, baina berri horiek oso xeheak dira gehienetan. Bat hil dela, beste bat ezkondu, hirugarren batek haurra izan duela. Frangotan hiru lau lerro, Ez gehiago. Hilentzat behin baino gehiagotan bere lagunak erasiatzen ditu, Euskaldun bat hil eta bestek jakin gabean ehortzia izan delakotz, nehor gabe.

Behin aipatzen du 20 bat Euskaldun zaharrek San Franciscon eginafaria. Eta zinez zaharrak ziren: Juan Dickou eta Juan Latsaga biak 1810an sortuak, J.M. eta Martina Aguirre 1813an, Juan Garat 1816an, Florencio Eizaga 1830an. Beste 14 ere baziren, bainan lehen horien berezitasuna, elgarrekin etorriak zirela Montevidetotik 1849an⁵³.

Bazekiten elgarretaritzen besta egiteko. Juan Iriberry Baigorriara joan zelarik Bautista bere ilobarekin, 23 bildu ziren bazkari eder bat egiteko eta denen izenak ematen ditu KEHak⁵⁴.

Denak artzen ziren kantuz, bainan baziren bertsulariak, hala nola Thomas Ithurralde⁵⁵ eta xirribita joile bat ere. Los Angelesetan Sacred Hearteko fei-

51. CEH 1893.II.16/1.

52. CEH 1895.II.2/1.

53. CEH 1893.X.7/2.

54. CEH 1894.V.12/1.

55. CEH 1896.IV.18/2.

rian, Salaberry deitu bi ahizpa Eskualdun, San Juan Capistranokoak, ari izan ziren kantuz⁵⁶. Jose Goñi Aldudarra ere bertseka artzen zen⁵⁷.

Quatro de Julio-ren zelebrazteraz etorri ziren Tehachipirat, lau egunen bidea eginik zaldiz Juan Arreguy, Gracian Oronoz eta Jean Elissague. Beste 14en izenak ere emaiten ditu Ameriketako besta nazional horren karietara toki berean⁵⁸.

Uretara joaten ziren. Behin baino gehiagotan aipu dira San Juan Capistranoko ur beroak. Han ziren hamar bat Euskaldunen izenak emaiten ditu aldi batez⁵⁹. Beste batzu gerorago⁶⁰. Ez zitezkeen hain segur artzain xoilak!

AUZIAK

Auzi aintz aipu da. Gobernamentuko ordezkariekin izanak: hala nola Michel Erreca eta Jean Tihistak irabazi zuten Goi-Kortean San Bernardinoko Supervisor-aren kontra⁶¹: honek artzainen kontra hartu erabaki batzu hautsiak izan ziren. Bigarren erabaki bat ere hauts arazi nahi zuten: ardi bakotx 10 sos pagatu behar zuten artzainek. JP Goytinok artzain guziak gomitatzen ditu, fresetan parte hartzera, abokat on bat har dezaten (hauek ez omen baitziren kitorik ari, KEHen arabera), ondorioaz artzain guziak baliatuko baitira eta ez bakarrik bi artzain horiek⁶².

Goytinok arrazoin zuela ohartu ziren gero: 5 Euskaldun auziperatuak izan ziren San Bernardinon 10 soseko hori ez pagaturik⁶³. Eta ez zen arralleriarik! Erreca eta Carricaburuk 1.000\$ pagatu behar izan zuten behin: ardi on batek 2\$ balio zuen⁶⁴.

Beste 8 deituak izan ziren Mohaveko urak zikindurik: 1.000\$ berme eman behar izan zuten hauek ere libre gelditzeko⁶⁵.

56. CEH 1894.XI.3/2.

57. CEH 1897/III/22.

58. CEH 1893.7.15/2.

59. CEH 1893.VIII.26/3.

60. 9CEH 1893.IX.2/3.

61. CEH 1893.X.7/3.

62. CEH 1893.X.7/2.

63. CEH 1894.4.28/1.

64. CEH 1894.VII.7/2.

65. CEH 1894.XI.17/2.

Ongi atera ziren beste bi: Piarres eta Pedro Anchagno arrestatuak izan ondoan San Bernardinoko lur erresalbatuetan, libre utzi zituen auzitegiak⁶⁶.

Auziak baziren Euskaldunen artean ere: Pazkarik ez izanez, pazka izaiteko manerarik ere ez eta, Arambel-ek Pedro Uharrieti saldu zizkion 2.000 ardi eta bildotx. Hauek sesi arazi zituen Jean Irilarrik bainan auzitegiak Irilarrri hobendun ekarri!⁶⁷

Vicente Yturralkdek plenta bat pausatu zuen Domingo Ameztuyen kontra baizik eta bere andrea hilen ziolako mehatxua egin ziola⁶⁸.

Ordokik irabazi zuen, Biscarretek bi zaldiz egina zion auzia⁶⁹.

Eskualdunak ez zitezkeen egon kontrabandan ari gabe, Ameriketan ere: Pedro Lekunberri hegoaldekoak 50 peso pagatua behar izan zituen wiskiak saldurik baimenik gabe⁷⁰.

Pascual Castorenari bisita bat egin zioten 3 Euskaldunek St Quentineko presondegian. Bizi guzirako kondenatua izana zen bere emaztea erahil zuela-kotz. Kasetak dio “egia erraiteko oso osoa, “injustuki” burutik joana omen baitzen⁷¹. J.F. Yparraquirre, JM eta Jose Aguirre izan zitzaizkion bisitaz: 18 urte hartan preso zen!⁷²

GORA BEHERAK

Aferak ez ziren beti nahi bezela joaiten. Itzaina jaunari bi etxe beren lurrekin, 4.000 ardi eta 16 tona ile sesi arazi zizkion Juana Samonset andereak zor baten estaltzeko⁷³.

Seriosagorik ere gertatzen zen. Jose Correa bere koinata tiroz garbitu zuen Gaspar Valenzuela koinat Mezikarrak: batek bestearen haurra jorik samurtuak ziren⁷⁴.

“Xubero” (Jean Goyhenetche) deitu Sohutar bat Kaliforniako Euskaldun xaharrenetarik, hil zen 72 urtetan: bere azken urteetan nahaskeria frango

66. CEH 1893.VII.22/1, 94.IX.15/2, XI.28/2.

67. CEH 1894.VI.16/1.

68. CEH 1893.XII.30/2.

69. CEH 93.VII/15/2.

70. CEH 1896.4.18/2.

71. CEH 93.VIII.12/3.

72. CEH 1896.7.18/2.

73. CEH 93.VIII.5/2.

74. CEH 1894.IX.29/2.

izana zuen bere 3. emaztearekin; geroztik herritarren ganik berex bizi zen bakarrik bere etxean. Azken orenetan zela, emazte ohia jin baitzizaion, ostiko bat eman ziezaion manatu zion ilobari. Bi seme alabei 10.000\$-ko ondoregoa utzi zien⁷⁵.

Inazio Mayo Ahetzak Jean Etchebarrenen ardien markak aldatu zituen, berea emaiteko⁷⁶.

IXTRIPUAK

Beste oren latzik ere bazen. Ixtripuak bide horietan. Ez da egungoa! Celeonio Elarre Nabartarra hil zen bere karrosa urerat eroririk; ez zen ito iduriz bainan kolpean hil.

Balio du irakurtzea Juan Doray-ri gertatu zitzaiona: “Behor batek izan ditu bi ume egun berian. Goizian goizik hemendik phartitu zen Sr Don Juan Doray Payuteko mendietara. Ongi askaldurik gure jauna abiatzen da bidean eta denek uste ginduen ja bide erditan bezela izan behar zela, etorri delarik berriz gibelera hantik oren baten buruan. Karrika buru batetik hasten da esku batez keinuka eta norbeitek erremarkatzen du Luzaidek zerbeit izan behar duela bertze eskian zeren ez baitu batere mudatzen. Erran eta hala izan. Zaraman zaldiak aurtikirik heldu zen gibelerat besua hautsirik eta huna nola gertatu izan zaion. Zaramalarik mando bat kargatuia probisioenez, krastutik, khorda sartu izan zaio azpiko zaldiaren buztanaren azpian eta nola johan baitzen erroz bati beheiti, buruz ganka aurtiki izan du aberiak. (...)

Egun hartan berian, alimale berak aurtiki izan du bertze zaldizko famatu bat eta hura da Juan Erramuspe (Urla). Duda gabe, jaun hunek menbruak ongi eginak izan behar tu zeren ez dio erorikoak deus malurrik egin eta sekulan baino hobeki dela iduri du pilotan artzeko⁷⁸.

Beti harma eskutan, eta harmekin ere izaten ziren ixtripuak. “Bizkarraren gainean johan zuelarik “rifla”, jautsi zen Erro 10 orenetako irian ibaiarat ardieri edan arazteko. Denbora berean, nausia, Kadet Noblia, gertatu zen zaldiz phasatzea eta laster galdatu zuen muthilari zer egin nahi zuen arma harekin.

Antonio Errok berehala ihardetsi zion nahi zuela tiroka ikasi. Orduan nausia jautsi zen eta tiroka abiatu harroka bati, erakusteko frango tirorari ona zela. Mutilak nahi izan zuen harroka hunkitu bainan ehun pie bazterrerat joan zen tiroa. Bere kolpeaz guti satisfos, berriz abiatu zen armaren kargatzen. Nola kartutxa ez baitzen aise sartu nahi phusatu zuen ukhomilo ukhaldi

75. CEH 1893.XI.18/2.

76. CEH 1894.X.6/2.

77. CEH 1895.II.9/2.

78. CEH 1894.IX.29/2.

batez. Berehala kartutxa zalapartatu zen! Bala joan zen arman barna bainan bolpora guziak dauzi egin zuen gure herritarraren bisaiarat izialdurarekin lurrera erortzen zela.

Nausia harriturik gelditu zen: uste zuen mutila hila zela. Arbola baten azpian etzan ondoan gizon kolpatua, joan zen Kadet Noblia lasterka, zaldiz, etxerat, karrosa baten bila. Eta arratsaldeko 3ak eta erdietan sartzen zen San Diegoko portaletan bere mutil kolpatuarekin. Berehala Dr E.H. Crépin deitu zuen eta gure herritar dohakabea ikusi orduko erran zautan ezkerreko begia arrunt lehertua zuela, bainan pentsatzen zuela sendatuko ziola eskui-nekoa”⁷⁹.

Hona beste ixtripu baten berri, denbora berean salatzen baitigu gure gizona kanpoan lo zegoela euria ari zelarik.

“J. Etcheverry-k, etzanik zelarik, nahi izan du uriaren gatik, bere harma ezarri ohearen ondoan gau saminean, ez zadin busti. Nolazpeit rama batek hunkitu du harma eta tiro guzia sartu da gure herritarraren gorputzean. Pentsa zer sofritu ahal duen, dohakabeak, bakarrik, gau luze hartan.

Biharamunean, anaia joan zaio laguntzerat eta ekarri du kolpatua Summer-erat. Bainan jadanik agonian zen eta zenbeit orenen buruko botatzen zuen azken hatsa⁸⁰.

Ezkondu berria zen Jean Jauregui Eihalartarra, bere andrea eta Jean Lorda Lasarra mainatzen ari ziren, uhain ikaragarri batek eraman zituelarik. Ez zekiten igerika. Oihuka hasi ziren, laguntza etorri, bainan emaztea baizik ez zuten atera bizirik⁸¹”.

Kadet Iribarnek bi urtetako alaba galdu zuen Los Alamitosetan, itsasorat eroririk eta tiran batek eramanik⁸². Jende guti zen ehorzketetan, berria ez baitzen jakin.

Aste berean Arambide 20 urteko Lasarra hil zelakorik nehork ez zuen jakin. Goytinok ezkatu zuen Eskualdunerei holakoetan berria jakin araz zezaten⁸³.

Kontseilua ez zen beti entzuna izan. Martin Toledo Iruñarrak Juan Guezanburu Lasarra, bere laneko laguna pala ukaldi batez erahil zuelarik, hona zer irakurtzen dugun. “Ehortzia izan da ikaragarriko presan eta harren ehortzale atrebitueri sobera izan zaiote meza baten emanaztea gure herritar dohakabe

79. CEH 1894.6.23/2.

80. CEH 1896.12.19/+2.

81. CEH 1893.VII.15/1.

82. CEH 1894.X.27/2.

83. CEH 1894.XI.3.

horren arimarentzat. Zer eginen ote zuten gastuak beren sakeletarik pagatu behar izan balituzte. Ez zen aski Eskualdun batek Eskualdun bat hiltzea, behar ziren oraino beleak jautsi gorputza ahal bezen laster ehortzeko!”⁸⁴

Hilenzat zuen errespetuaren lekuko lerro hauek:

“Atzo hilen eguna, gure herritar gehienak izan dire usaiaren arabera hobien bisitatzen hilherri katolikoan. Joan den urtean bezela, Eskualdunen tonba abandonatuak lorez apainduak izan dire berriketari hunen egileen manuz”⁸⁵.”

Miserietan aipatu behar dugu erotegia. Juan Ithurburu San Bernardinoko erotegian sartu zen 1893ko lehen hilabeteetan⁸⁶ eta beti han zen 94 ondarean, Bizkailuz abokatarekin⁸⁷.

Migel Erreca Palla, 2 haurren aita ere erotegi hortan sartu zuten⁸⁸. Goi Kortearen manuz, bainan zenbeit hilabeteren buruan etxera itzuli zen⁸⁹.

5 Eskualdun izan baitziren erotegi horren ikusten 1893an 3 Euskaldun bazirela zioten, horietarik bat nexkatxa⁹⁰.

Arretxea gazteak bere buruaz beste egin zuen Uztaritz bere herrira, itzuli ondoan⁹¹.

Pierre Legarto Baigorriarra ere burutik joan zen, bainan erotegian sartzeko partez dirua bildu zuten bere herrira igortzeko. Dirua eman duten 40 bat Eskualdunen izenak agertzen dira kasetan⁹².

Francisco Aguer-ek 4.000 peso, bere fortuna guziaz utzia zuen lagun baten esku... eta honek kiebra egin! Bere buruaz beste egitera entseatu zen⁹³.

Aroaren aldetik ere arrangura asko eta asko agertzen da, eurite, idorte eta hotz:

84. CEH 1894.X.27/2.

85. CEH 1897.XII.25/3.

86. CEH 1893.VII.29.

87. CEH 1894.12.15/2.

88. CEH 1893.XII.9/2.

89. CEH 1894.III.24/2.

90. CEH 1893.XI.18/2.

91. CEH 1894.X.6/2.

92. CEH 1897.XII.18/3.

93. CEH 1897.2.6/2.

“Haize galerna batek bisitatu du aste huntan Kalifornia guzia. Haize hotz hori hormaz segitua izan da eta kalte handiak egin bide ditu arbola fruitudun loratuerei”⁹⁴.

6.000 ardi egarriz hil ziren Mohaveko basamortuan, Tehachapi aldean. Gutik egin zuen artalde horren artzaina ere ez baitzen hil: Ekarri dutelarik Mohavetik, iduri zuen erroa eta ez zitakeen gehiago mintza⁹⁵.

Ordukotzat baziren beren haurrak eskolatzen zituzten Euskaldunak: Bertha Iribarne Anaheimeko seroretan zen⁹⁶ Domingo Bastanchuryren bi seme zaharrenak Oaklandeko S. Joseph Academy eskola handian⁹⁷ Los Angelesetako Business Colege komertzio eskolan ibili ondoan, Gaston Etchepare botikario ofizioa ikasten hasi zen Violé botikaroiarekin⁹⁸. Aintzineko urtean Dominique Goyhenetchen aldi izana zen botika berean⁹⁹.

Baziren eskolan ibili gabe eskolatuak zirenak: Manex Erramouspe (Urla) San Franciskoko pilotari famatuak, Nevadan ikasia zuen Indioen mintzaira (Intchich tapa, tamany)¹⁰⁰.

Mintzaira aldetik orori nagusi San Franciscoko Goldaracena abokata: euskara, frantsesa, espainola, Italiarra eta Portugesa mintzo zituen!¹⁰¹

AMERIKANO HANDIAK

Amerikano “haundiak” baziren. Goytino lehen lehena. Manuel Ordoki Los Angelesetan hautagai izan zen, herriko kontseiluan sartzeko. Pentsatzen dugu ez zela pasatu zeren eta ondoko astekarietan ez da gehiago aipu¹⁰².

Los Angelesetako M.V. Bizkailuz abokataren puba badugu lehen zenbaktik. Baina gero berri txarrak. Bere andreak dibortzioa eskatua zuen¹⁰³. Konstableak gelditu du paper faltsu bat eginik bankoan¹⁰⁴. Gero jakiten dugu Korteak San Bernardinoko erotegira igorri duela. Bere andrearen ganik bere-

94. CEH 1897.4.3/2.

95. CEH 1896.2.6/2.

96. CEH 1894.VIII.11/2.

97. CEH1893.IX.9/3.

98. CEH 1895.V.18/2.

99. CEH 1894.XII.15/2.

100. CEH 1899.VIII.5/3.

101. CEH 1896.I.18/2.

102. CEH 1894.III.17/2.

103. CEH 1893.VII.22/3.

104. CEH 1894.III.17/2.

xiz geroz arrunt makurrerat joa zuen. Bi aldiz gelditu dute xeke faltsuak eginik eta azken aldian sakelan bazuen txeke faltsu andana bat, denak ttipiak. Hamar bat urte bazuen abokat zela. Euskaldunen konfiantza bildua zuen eta ehun mila pesos goiti egina zuen zenbeit urtez. Bainan edariari lotu zen, bere fortuna funtsik gabe jaten zuela. Erotegitik atera zen, berriz, emazteak eta adixkideek abandonatzen zutela. “Zer etsenplua gure gazteriarentzat!” dio Goytinok. Erotegitik atera ondoan berriz egin zituen txeke faltsuak beste bi egonaldi segurik egiten zituela presondegian¹⁰⁵.

Kanadako Miguel Oxarartek odoleko zaldia bazituen. 11 lasterketan parte hartu eta 8tan lehen atera ziren, 3tan bigarren¹⁰⁶.

Maria Dominika Garategi Arnegiarra 1859an joana Ameriketara, Suediako eta Noruegiako kontsularekin ezkondua zen eta 18.000\$-en ontasuna utzi zuen hiltzean. Baina testamenta gaizki egin! Ez zuen izenpetu!¹⁰⁷

Hotelen jabeek ere ez zituzten sakelak hutsak: Piute hotel erre zelarik Tehachapin 10.000\$en makurra izan zela irakurtu dugu¹⁰⁸.

Jose Sansinenak 64.000 pesoren ontasunak utzi zituen hiltzean¹¹⁰.

Pedro Banca batek bazituen 5 edo 6.000 ardi bere arrantxoan¹¹¹. 5.000 zikiro saldu zituen behin¹¹². Pedro Etchabarrenek 2000 ardiz goiti erosi zituen¹¹³. Pierre Uharriet Los Angelesetik Texasera joan zen eta harat orduko erosi 5000 ardi, 200 azinda buru, etxe eder bat eta 600 akre lur¹¹⁴. Juan Erramouspek 2.000 ardi saldu zituen behin¹¹⁵ eta urte erdi baten buruan beste 1800 ardi eta bildots¹¹⁶. Joanes Errecartek baguntra bat urde gizen¹¹⁷. Fullertoneko Domingo Bastanxurik saldu zituen 6.000 zaku zebada edo garagar eta 1400 zaku ogi bihi. Horrelako salerospenak egiten ziztuztenak ez ziren bi sosekoa sakelan ibiltzen¹¹⁸.

105. CEH 1897.XII.11/2.

106. CEH 1893.VII.29/2.

107. CEH 1896.III.28/2.

108. CEH 1895.III.28/2.

110. CEH 1896.5.16.

111. CEH 893.IX.23/2.

112. CEH 1893.X.7/3.

113. CEH 1893.X.23/2.

114. CEH 1894.VI.2/2.

115. CEH 1893.XI.4/3.

116. CEH 1894.VI.30/2.

117. CEH 1893.X.7/3.

118. CEH 1897.8.21/3.

Nolaz ez aipa Kadet Leonis? 350.000\$ utzi zituen hiltzean. Bainan ondo-regoa eskuratzeko esperantzan Kanbotik Ameriketara joan familiakoek ez zuten ardit bat hunkirik lau urteren buruan. Ez omen ziren behar bezela jokatut. “Anai arrebak etorri zirelarik lasterka eta zoin lehenka Frantziatik, hemengo Jaun batek –paper hunen buruzagiaren ahaide batek– ofreitu zioten bakotxari 20.000 peso edo ehun mila libera beren partearendako. Ez dugu “omen” erraiten zeren ofreimena gure medioz egin zen! Bainan anai arreberi iduritu zaioten soma hori ttipixkoa eta mesprexioz errefusatu zuten. Orai, zenbatetan sal ote lezakete beren partea?”¹¹⁹ Familia horren kontra idatz dezaken aldi oroz ez du huts egiten. Michel Leonisek bankarrota egin zuela Baionan¹²⁰. Californian gizon bat hil zuen Valdes, Leonisen semea zitekeela. Baxterta, prefosta!¹²¹ Mariana Bonnet Migelen arrebak eliza egiteko lurra eman zuela errana izan baitzen, ez zela egia zeren eta lur hori bera saldu baitzuen 600 pesotan¹²². Bainan gatu honek bazuen beste buztanik, Eskualdunarekilako polemikan ikusiko dugun bezela.

Orori nagusi Simon Oxarart: hiltzean utzi ziztuen miliun bat pesoren ontasunak: orduko 5 milioi libera!¹²³.

INDIOAK

Indioak ere aipu dira! 200 jautsi ziren mendietarik aberen ebastera. Biharamunian Ayala kapitaina etorri zen 40 soldadorekin. 3 oren ari izan ziren tiroka. Indioak ihesi joan 7 soldado hilik bai eta kapitainaren zaldia¹²⁴.

Kasetak ez du komentariarik egiten gertakari horietaz bainan bestalde ikusten da gure Amerikanoak arrazakeriak joak zirela, bai Indio, bai Judu, bai besten kontra.

“Ez da Amerikano etxerik zointan ez baita Indio bat edo bi bokataren eta untzien ikuzteko. Nik ikusi ditudanek izan behar dute enplegu handia, zeren eta ez dute denbora biziki galtzen zango ixterren garbitzen. Galdegin izan dut noiz ikuzten diuzten beren baxerak eta gaineratiko diuztenak. Errepostia izan dut, hasteko zangoak eta ixterrak urthean behin egiten diuztela eta hura da, mahatsa lehertzen dutelarik arnoaren egiteko.” Manexen Artikulu osoa aire berean da¹²⁵.

119. CEH 1893.XI.4/3.

120. CEH 1894.V.12/2.

121. CEH 1897.V.1-2.

122. CEH 1897.5.1/2.

123. CEH 1897.XII.18/3.

124. CEH 1893.VIII.26/2.

125. CEH 1895.7.7/2.

On da jakitea ere zer egiten zieten Indioei garai haietan: "Yuma-ko Indioen lur erresalbatuak ezarriak izan dira gobernuaz jende xuriek hartzeko gisan. Bakharrik bortsu acre lur ematen dio gobernuak Indio matxo familia duen bako-txari eta bertze hainbertze berriz Indio zahar eta oraino dontzeilla daude-ner"¹²⁵.

Hona orai Txinoetaz, beti Manex: "'John' buztan luze ardi moxleak hemen dira. Ba jauna, hemen ez da gizonik ezagun ile pikatzen. Denak xinuak dira. Ahalge ere baniz erraiteko jendakia¹²⁶ irrisajale horrek egiten duela ardi mox-teko lana gizonak baino hobeki."

Juduetaz: "Judien arrano aztaparretarik ateratzen badira, eta ez dugu dudarik egiten, ez direla eginen, beldur izaiteko da sudur makola handi horiek ez dituzten gure herritarrek enganatuko orai artio egin diuzten bezen errexki, eman ez ahur bat zahi, kintal bat ogirendako"¹²⁷.

TREINEN KONTRAKO ERASOAK

Cow Boy filmetan bezela, gaixtaginek bidean gelditu treinen berri ere badugu.

"Egun guzietan heldu dire berriak nola treinak ebasten ari dituzten alde guzietan. Barda etorria da depexa zoinak erraiten baitu laur ohoinek arrasta-tu dutela tren bat Hancock deitzen den hiriko ondoan.

Treina johan zen Hecla-ko minetarat mineroen pagatzeko diruarekin. Bi gizonak, maskatuak, manatu dute injiniorra arrest dadin eta denbora berean, bertze biek kentzen zuten dirua kofretik. Hiruetan hogoi mila peso ebatsi dute¹²⁸.

Ondoko astean berriz: "Itzultzen gira gure Erresuman lehenagoko bandi-kerietarat. Joan den astelehen arratsean, 20 gizon armatuek arrastatu dute tren bat, 40 mila Chicagoko ondoan. Mekaniziena hil dute eta 'Express'-eko karroa dauzarazi dinamitarekin eta ebatsi dute bederen 300 mila peso"¹²⁹.

ESKUALDUNA

Ez gaitezke kasetalari batez mintza artikulurik eman gabe. Etcheverry Eskualdunaren zuzendariarekin izan polemika aipatuko dugu.

126. CEH 1895.3.30/2.

127. CEH 1894.X.6/1.

128. CEH 1893.9.16/2.

129. CEH 1893.IX.23/2.

1893ko agorrilaren 29an izan bozken ondorioz hasi zen. Hona zer irakurzen dugun KEH-n.

Eskualduna, Mauleko deputatu ohiaren gazeta xuria eta saildua ez da kontent nehoz eta partikulazki gure berrikeriaz (...) Eskualdun boz emaliek erran balin badiote, joan den abuztuaren 20an, hobeago zela haren osagarriarentzat ez Parisera joaitea deputatu gisa, zer falta du gure paperrak?

Bainan jaun deputatu ohi hori hain da kexu non ez paitauke ixilik eta bere afruntuen ahanzteko huna zer igorri daukun bere urriaren 6 eko paperran.

“La Réveil Basque prône un journal basque de Los Angeles qui faisait des vœux pour son patron. Nous voudrions savoir si ce journal n’est pas l’oeuvre d’un ancien correspondant de l’*“Eskualduna”* avec qui nous avons dû rompre toute relation à la suite de démêlées qu’il avait eues avec les tribunaux des Etats Unis”¹³⁰.

Jaun kexu horren galde frantsesari errepostu laburtto bat zor dugu.

1. Gure berrikeriak ez du egundaino desirkunderik egin Mr Henri Berdoly, Mauleko deputatuaren fagoretan. Aboztuaren 19an erran izan dugu: “Eskualdunek igorri behar dituzte Pariserat, deputatu gisa, gizon justu eta zuharrak, beren mandatarien alde. Hori Mr Henri Berdoly-ren fagoretan balin bazen, hanbat gaixto Mr Louis Etxeverriren dako.
2. Paper hunen buruzagiak ez du egundaino zangorik sartu Estados Unidosetako tribunalean. Paper frantsesaren jabe gisa, azken zazpi urte hautan, izan ditugu kitzikatzaille frango, bainan gure hiru auziak ez dire egundaino bakezko jujea baino urrunago izan eta aldi guzietz atera gare tribunaletik bitorios eta satisfos.

Untsa oroitzen balinbagira, Donapaleuko tribunalak –eta ez bakezko jujeak– kondenatu zuen 1889an, Mr Louis Etxeverri bezela deitzen zen jaun faltadun bat. Bainan egia erraiteko oso osoa, Paueko korteak hautsi zuen jujamendu hori erranez bortitzegi zela.

Guk hala hala, ez dugu sekulan jujamendu hauste beharrik izan, Jainkoari esker!

Eta bizkitartean izan gare askotan tribunaletarat deituak. Azkenik, 1892ko abendoan, motxordin itsusi batek galdatu ginituen 75 mila duro zeren erran baikinuen **Le Progrès** deitzen den gure paper frantsesean, ez zela

130. Eskualduna kasetan aurkitu dugu artikulu bat Californiatik igorria eta J.P.G. izenpetua. (1889.VII.14). Hain segur Goytinorena: zenbat Euskaldun bazen Ameriketah eta Kalifornian erraiten du besteak beste; gero ere gai bera aipatauko du bere kasetan. Beste bi ere ikusi ditugu Kaliforniatik igorriak, bainan izenik gabe. Pentsatzeko da hauek ere Goytinorenak zirela (1888.III.16/3 eta 1888.XI.9).

dontzela pullita. Nunbeit han egia izan behar zen zeren auzia idabazi ginuen errotik bate gasturik gabe.

Eta handik bi asten buruan, Californiako Gobernadoreak igortzen ginituen “Notario” titulua Los Angelesetako kondadoko. Ohore hori lehen aldikotz egiten zen hemen estranjer bati!

Eta Mauleko deputatu ohiari zer ohore egin diote herritarrek joan den abuztuaren 20an? Ostiko bat eman eta bere Salako gaztelurat kukutzerat igorri!¹³¹

Astekariko beste berriketariak ere bere alde jarriko zaizkio. Hala nola Santa Mariako Bizkondea izenpetzen duen Bernard Etxeverrik idazten duen:

“Lehen aldikotz aspaldiko urte hautan gure bi deputatuak Errepublikanoak dire. Eta gero?

Gure erresuma huntan Kardinal Gibbon, apezpiku eta apez guziak Errepublikanoak dire eta lehenbizikoak litazke Errege edo Inperadore baten kasatzeko. Europako buru koronatoek ez duteia haltoki erraiten Aita Saindua, Leo XIIIgarrena, Errepublikanoa dela? Orduan ez dugu ohorerik baizik ikusten Errepublikanoak izaita gure bi deputatuak¹³²”.

Holako lerroek plazer baizik ez zioteten egin hemen, **Le Réveil Basque**, gorrien kasetari.

“Kalifornia aldean bada Eskualdun andana bat. Ez hargatik Buenos Aires eta Montevideon bezenbat. Bizkitartean hainbertze artha dute sorlekuko berrien jakitez non, Los Angeles izena duen, Eskualdunak dauden kantonadoko hirian, gure herritar argitu batek hedatzen hasi baitu egun hootan, **Eskual Herria** deitzen den eskuarazko gaseta bat.

Aste guziez ebiakoitzetan agertzen da gaseta hori. Eta nola alderdi heta-ko mendietan artzain bizi diren Eskualdunek, gehienik Aldudar eta Bankarrek, baitituzte hirian edo bederen herri bilduetan beren pausagiak, segidazko lagunak, zortzi guziez gaseta berriketari hori hedatzen da mendi zoko, herri izkina, Eskualdun bakar bat bizi den guzietarat. Halako gisan non erran baititake gu baino hobeki argiatuak direla herritar hook, gure eskualdeko berriz.

Pentsa zazue zer plazerra, zer atsegina ez duten kausitzen gisa hortan zortzi guziez, jakinez, ez bakarrik elgarren arteko berriak, bainan oraino Frantziakoak ere, egunetik biharamunera, telegrafari esker. Ezik, hemengo botzketako ondoko igandean, Kaliforniako Eskualdun guziet bazakiten arras ongi,

131. CEH 1893.XI.4/1.

132. CEH 1893.XI.9/1.

gorago aipatu gasetara horri esker, nola Morde Berdoly eta Morde Saint Martin Harriague deputatu ziren Euskal Herrian.

Eta ikus dezazuen orai zer heinetaraino gure herritar hook izpiritu onaz dohatuak diren, beha zazue zer zioten Kaliforniako Eskualdun hook gure joan den agorrileko bozketaz. Hltzez hitz errepikatzen dautzuegu **Euskal Herria** Kasetak diona gauza horren gainean.

“Agian Euskal Herriko boz emailek emanen dituzte bazterrera lehenagoko idea zaharrak eta oroituko Frantzia Bake beharretan dela eta behar dituztela igorri kanbararat, deputatu zuhur eta ezagutuak, ahal bezenbat Euskal Herria fagoratuko duten gizonak. Errepublika joria da Frantzian ongi segurturik eta botzemaile guzien eginbidea da igortzea Pariserat gobernamentua ondoko duten gizon batzu.

Gure Euskal Herriko herritar ainitzek uste dute Errepublika berenez gobernamendu tzarra dela eta elisionearen etsaia. Baina badira uroski errepublika onak. Huna hemen gure erresuman dugun gobernamendua. Denek libertate osoa dugu. Nahi duenak elizara joan libro da. Gure arkapezpiku eta apezak, denak errepublikanoak dira eta ez liteke deusetan ikusi nahi gobernamenduaren kanbioa¹³³.

Horrelako konplimentuen ondotik, **Le Réveil** bilakatuko da CEH-en erreferentzia Iparraldeko berriak emateko.

“Bertze berrikerari bat gustu handirekin, aste guzietz errezebitzen duguna da **“Le Réveil Basque”** Pauen agertzen dena, erdi frantsesez, erdi eskuaraz. Paper pullit bat da frankoki mintzo dena aire saindurik hartu gabe, bertze asko gazeta bezela, gezur baten erraiteko. Jadanik 8 urte hautan agertzen da eta ongi ainitz egin du orai artino Euskal Herriari eta gure herritareri. **“Le Réveil Basque”** alegeratu da gure papera argitaratu delarik eta beti gure alde atara da, bertze gazeta mintuxeku (= mintu kexu?) batek intsultatzen ginituelarik – eta oraino, gezurrez plazer balin baduzu. Gure agur beroenak igortzen ditugu berrikerari lagun horri, ez zeren den gorria, baina bai Eskualduna eta zinez beldur gabea. Esperantza dugu haren aste guzietako bisita eta noizetik noizerat ebasten balinbadugu zonbeit berri gazeta hortan, pentsatzen dugu harren egile onak barkatuko daukula gure huts arina. Beraz ongi etorria gure arterat, **“Le Réveil Basque”** horri¹³⁴”.

Baina Iparraldeko hoinbeste Euskaldunek irakurtzen zuten kasetara batek idaztea “errepublika onak” bazirela, Ameriketara apezpiku eta apez guziak errepublikanoak zirela, eta hori hemengo bozemailek jakitea, handia zen ires-teko **“Eskualduna”**rentzat. Gainera artikulua bortitza idatzia zuen Goytinok Etxeverriren kontra. Hama xorrotxa hartuko du orai honek eskutan.

133. Réveil 1893.X.1.

134. CEH 1893.XI.25/1.

“L’**Eskual Herria** de Californie aurait bien tort de se gêner pour nous attaquer. Cela nous met à notre aise pour préciser nos questions à ce sujet.

Monsieur Jean Pierre Goytino qui dirige ce journal, est-il le même qui a passé 6 mois dans la prison du comté de Los Angeles pour avoir contrefait la signature d’un sien cousin sur un billet à l’ordre de 3.800 dollars?

La plainte portée contre lui fut abandonnée, il est vrai, et la cause annulée, mais à la suite d’un aveu de son faux signé par le dit Jean Pierre Goytino, et par la suite, par la mort du plaignant ; le fac similé de la confession de Jean Pierre Goytino se trouve dans LE GAULOIS du 2.9.91. Il est daté du 2.XI.1888. Nous serions heureux de savoir encore une fois si ce faussaire est le même que celui qui dirige avec tant d’aplomb l’**Eskual Herria**, deshonorant ainsi le nom basque et la langue basque à l’étranger. Il ne peut faire grand mal en Californie où il est connu. Mais il convient qu’il soit connu aussi en France, si c’est lui¹³⁵.

Le Réveil-ek agertzen du, hazaraoaren 4an, “Justu Pello” Goytinok Etxeverriren kontra idatzi artikulua, ondoko astean, komentario hau egiten duela ‘Jelosiak ez du deus onik’ titulu pean. **Eskualduna** gasetak ez diola onets CEU ak egia erran dezan idatzi ondoan segitzen du:

“Hara zertako dorpeenak botatzen dituen egun hootan, herritar menturaz batere ezagutzen ez duen baten kontra. Zer nahi izana gatik, ez du karitatea ezagutzen, gutiago berak pratikatzen”.

Hilen egunaren kariatara Goytinok idatzi artikulua erlisio baten parte bat eman eta segitzen du:

“Zer diozue ba, gisa hortan mintzo den gizonaren egitateaz? Ez zauzue iduri merezi duela batzari ona bere herriarren aldetik?”¹³⁶

Goytinok ez du erreposturik emaiten Etxeverry-ren akusazioari, baina behin ere idatzi duen artikulurik bortitzena botatzen dio, akusazioak eginez berak ere.

“Eskual Herriak joan den elektionetan kalitu duen ergel bat, bere izenaz deitzeko, Louis Etxeverri. Ez da gutiz kontent eta hanbat hobe! Ergel hori, pika bezen xoroa, eta batzuek deitzen dutena idia, ez ditake kontsola joan den abotzuaren 20an hartu duen itzulipurdikoaz. Hain zen bada goxo Parise-ra joaitea, Eskualdun deputatu gisa eta eskuara jakin gabe, bere kusi Floqueten itzalean (Etxeverry-ren oseba zen, gorria!) ongi ebasteko Frantzia. Louis Etxeverry ez zen batere besteak baino gibelago eta badakigu leku segurretik ederki saltsatu dela Panamako eskandaletan. Deputatu ohi ipokrit horrek

135. Eskualduna 1893.XII.1/2.

136. Reveil Basque 1893.XII.10/2.

ahalge behar zuen berriz Eskualdun boz emaileri galdatzeko Parisera joaitea. Gure herritarrek ongi kalitu dute boz kolpez eta orai, han dago, ezin kontsoluta, bere Salako ziloan.

(...) Uste ginuen gure lehen errepostua aski izanen zela deputatu ohoi horrentzat. Ongi tronpatu gare. Bere frantses trixtean galdatzen gaitu berriz heian ez dugun bertze krimarik kometitu. Ez diogu erreposturik eginen. Zirtzil horrek ez du ohore hori merexi.

(...) Eta gizon zafratu hori hariko delarik, bere Salako zilotik, goitikaka gure gainerat, gure papera hedatuko da aintzina Eskual Herrian, erraiteko gure herritar maiteeri hobeago dutela sube hori bere gisa uztea. Burua lehertu diote bainan oraino nahi litake eztenaz baliatu. Uruski ez du gehiago ahalik¹³⁷.

1894ko urtean agertzen du “Bigarren epistola Louis Etxeverry-ri” titulua-rekin.

(...) Huna zerk kexatzen duen gizon gaixo eta pena egingarri hori.

1. Jelosiak
2. Ipokrisiak.
3. Fede tzarrak.

Gure berrikerari ttipia agertu den pundutik gizon saindu, debot, berthutos et xuri hori samurtu da. Pentsatu du arrazoinekin gure papera plazerekin irakurtua izanen zela Eskual Herri aldetan, Ameriketarik heldu diren bertze paper guziak bezela. Laster, Salako Ermitau ipokrita ohartu da Eskual Herrian hedatzen hari zela, harrek nahi baino lasterrago eta soberaxko aise erraiten ginuela, Eskualdun gisa, hartaz pentsatzen ginuena. Eta orduan asmatu du zerbeit gaxtakeria gure kontra.

Bainan zer erran **Eskual Herriaren** kontra? Ez zela katolikoa, paper tzar bat zela? Etxeverri gezurtiak ez zezakeen hori erran: paperaren irakurtzaileak laster ohartuko ziren ez zela egia. Apezen kontra zela? Ez eta oraino hori ere! Gure berrikeriak gain gaineratik errespetatzen ditu gure erlisione saindua eta harren ministro dohatsuak, – bainan fagorerik galdetu gabe, partikulazki elektionetako denboran. Agertu orduko, gure gazeta eta harren egilea, laguntzaileak eta irakurtzaileak, benedikatuak izan dira Baionako Jaun apezpiku jakintsunaz eta gure artzain nagusiaren kontseilu onak beti segitu ditugu, haltoki emanez gure paperaren gainean: Jainkoa eta sor lekua.

(...) Orduan kreatura ahalgegarri hori baliatu da bere ipokrisiaz. Bere baitan egin du: ez dezaket deus erran berrikeriaren kontra salbu: “son basque est très mauvais.” (...) Abiatu da kestionez kestione, emeki emeki lerratu da aintzinago eta azkenekotz Louis Etxeverri ohoiak erran gaitu ohoi bat ginela.

137. CEH 1893.XII.30/2.

Kestioneak maite dituenaz geroztik, huna zer galdatu nahi diogun kreatura ahalgegarri horri:

1. Egia dea, o gizon saindua eta xuria, zure aita zenak bertzeri ebatsiz egin zuela Ameriketara bere fortuna ttipia?
2. Egia dea, o gizon justua eta zuhurra, Parisen galdu dituzula, jokoan eta fama txarreko etxetan zure aita zenak utzi sos bakarrik eta zure andre emakumearen dote partea?
3. Egia dea, o gizon ongi zafratua eta erdi kalitua, ederki baliatu zarela deputatu karguaz, Panamako eskandaletan pulunpatzeko eta ongi saltatzeko, bertzen diruez hain poliki betetzen zintuelarik zure sakel hutsak eta largoak? Please answer immediately if not sooner.

(...) Gutaz jelos denaz geroz, gure berrikeriak zerbeit kalte egiten bide dio. Hobe, bai, hanbat hobe!

Eta gizon ergel horrek erakusterat emaiten gaitu gure “eskuara paregabea” garbiegi dela harren ezpain zikinentzat, intsultatzen gaituenaz geroz beti bere frantses ahalgegarrian. Hortarik ageri da nor dugun etsaia. Eskualdun bastart bat, Frantximanen artean bizitzeko hobeagoa!¹³⁸.

Tiroa zuzenago igorriko dio oraino Etcheverrik handik eta bi hilabeteren buruan.

“Nous avons reçu deux exemplaires de **L'Union Nouvelle de Los Angeles**, journal qui s'intitule “l'organe de la population Française de Californie, seul journal recommandé par le consul de France” (Goytino-ren **Le Progrès** gaizki ikusia ote zen?) Il est à sa quinzième année. Dans un de ses numéros est reproduite notre question à l'adresse de M Jean Pierre Goytino, directeur de l'**Eskual Herria**. Dans l'autre est inséré à titre d'annonce payée le fac simulé de l'aveu d'un faux commis par Jean Pierre Goytino en 1888. En voici la traduction.

“Los Angeles, le 2 novembre 1888. Je soussigné Jean Pierre Goytino affirme solennellement qu'un certain billet à ordre daté du 25.X.1887, payable à présentation, de la somme de trois mille huit cent dollars (3.800) avec les intérêts au taux de sept pour cent (7%) par an, signé Léonis et endossé par moi est un billet faux, le dit billet n'ayant jamais été signé par le dit Miguel Léonis. J'ai détruit ce billet de ma propre volonté. Jean Pierre Goytino.

Ont signé comme témoins: José Mascarel, L.C. Goodwin.

En considération de la déclaration ci-dessus, je consens par les présentes à renoncer à toute poursuite contre J.P Goytino pour cette affaire. Signé Léonis. José Mascarel, L.C. Goodwin, H.J. Fleischmann.”

138. C EH 1894.I.6/1.

Le journal ajoute. Par la déclaration ci-dessus, Goytino avoue le faux de 3.800 dollars, mais son affirmation d'avoir détruit le billet est mensonger attendu qu'il l'avait déjà négocié à la First National Bank et en avait l'argent en poche. C'est en découvrant ce mensonge que Léonis l'a fait mettre en prison et il y serait encore probablement si Léonis n'était pas mort. Voilà le notaire public! D'autres commentaires sont superflus¹³⁹.

Eskualdunak bazituen adiskideak Kalifornian (bai eta Goytinok etsaiak), bi kaseta horiek aurkiturik Baionara igortzeko! Akusazioa oso zehatza zen oraikoan eta ez zion erreposturik eman Goytino-k, hain segur ez zezakeelakotz, bainan bertsu zenbeit bota zizkion eta azken artikulu bat idatzi zuen, "Hirugarren epistola Louis Etxeverri" tituluarekin.

Bainan hona lehenik "Barea eta karakoila" bertsuak.

"Joan den abuztuaren 20an Xuberotarrek eta Baxenabartarrek ongi zafratu duten deputatu ohiari

Karakoil gorri bati
bare zuri batek
Erran zion: Cher ami
bizkarrean zer dek?
Goiz habil kargatua
lurrean herrestan!
Hunek behaturikan
laster zion erran:
Hobe hukek hihorren
burua garbitu
Ez berzeren bizkarraz
Frantsesez trufatu

Burlagarri izanez
askotan zuhoni
Zuhonek duzu nahi
Trufa egiten hasi
baino lehen niri
Beha zazu okhila
zure buruari
Bertzenaz sinets zazu
Gaizo Etxeverry
Maixko izanen zira
denen irringarri¹⁴⁰

Eta hona artikulua:

"Anbizioneak jana, Eskualdun arnegatu horrek nahi zuen deputatu izan. Hortakotz, orai duela 8 urte mundurat eman zuen –seme gisa– paper txar bat "**Eskualduna**" deitzeko kopeta izan zuena. Erran gabe doha paper hori ez dela

139. Eskualduna 1894.II.2/2.

140. CEH 1894.6.23/2.

egundaino irakurtua izan Eskual Herrian eta paperaren aita ez dela kapable bi hitz erraiteko gure mintzo garbian: badire buru gohor batzu ez dutenak sekulan mintzo bat ongi ikasten eta herrunka hortan emaiten ahal da Donazaharreko deputatu izana. Ganberan mintzatzen zelarik, deputatu guziek irri egiten zioten suhurraren azpian eta gure uzkinaxoak ez zuen Eskual odolik aski bere zeinetan irri trufak zintzurretik beheiti sar arazteko bere laguneri.

Norbeitek kondatu dauku kreatura horren gainean ixtorio bat aski irringarria.

1893an zen uztailaren erditsutan. Baigorriko merkatuan Louis Etxeverri zabilan deputatu pasatu nahiz botz batzu galdetzen buhame batzueri eskuak tinkatuz. Ardura entseatzan zen eskuaraz bere nahiaren adiaraztea erranez: “Mon cher ami, zuk emanen “botxa” niri?” Galde hori egin bide zuen mutil buhame zarpail bati eta hunek berehala ardietsi zion: “Jauna, hori beharko duzu ene andreari galdatu.”

Beha zauden etxeko jaun guziak ahakoka irriz hasi ziren eta Donazaharreko uzkinaxoak ez bide du geroztik “botxa” bat muthiko bati galdetua¹⁴¹”.

Ez ote liokete artikulu horien gatik ardietsi “palmes académiques” xingola hemengo deputatu gorriek, Jean Pierre Goytinori, bere balentria pedagogikoen gatik baino segurrago. Norbeiten etsaien etsaia adiskidea dela orok dakite.

Le Réveil Basque eta **Eskual Herriaren** etsaia izanez **Eskualduna**, hauek aliatu bilakatu ziren. **Le Réveil** eta hemengo gorriek izan baitute polemika horren ondorioz, hauteskundeetan ttanttoak baliatzeko parada, beren ikustea egin diote Amerikanoari, bere estakuru guziak ahantzirik, eta bereziki, xurien alde egin zuela kanpaina Zuraiden errient zelarik.

Gero, frangotan badira KEHTik hartu artikuluak **Le Réveil Basque**-en orrialdeetan: Ameriketara joaiteaz Santa Mariako bizkontearena¹⁴², Ohoinek atakatu treinaz¹⁴³, Mekzikotik Kadet Oxandabarratsek igorri bat¹⁴⁴, Ordoki hautagai Los Angelesetan¹⁴⁵, CEHeK mila ale igorri dituela Hego-Ameriketara¹⁴⁶ eta beste.

Mende baten buruan, gelditzen dena hauxe da: Jean Pierre Goytinok duela sortu iraun duen euskara hutsezko lehen astekaria, euskara ederrean

141. CEH 1895.II.23/2.

142. Réveil: 1894.1.24/1.

143. Réveil 1894.1.28.

144. Réveil 1894.4/1.

145. Réveil 1894.4.22.

146. Réveil 1894.10.14.

idatzia, **Kaliforniako Eskual Herria**. Orai eskutan daukagun kolekzioa osoa baldin bada, 850 bat orrialde egiten du. Kaseta orrialdeak. Ordu arte agertu euskal literaturaren parte handi bat hor daukagu, kasik batere ez ezagutua.

ITURRIAK

Hona Bibliothèque Nationaleko kolekzioan zer dagoen:

93.VII.15 tik 94.I.6 arte.
94.II.17 tik 94.XI.17 arte.
94.XII.1tik 95.II.3 arte.
95.III.16tik 95.V.4 arte.
95.V.18.
95.VI.1tik 95.VI.22 arte.
95.VII.6tik 95.VII.24 arte.
95.IX.14tik 95.XII.21 arte.
96.I.11tik 96.V.2 arte.
96.V.16tik 96.V.30 arte.
96.VI.13tik 96.VII.4 arte.
96.VII.18tik 97.V.29arte.
97.VIII.14tik 97.VIII.21 arte.
97.XII.4tik 98.II.25 arte.

Bestalde, “côte 172” zenbakiarekin, “affiches et journaux du 19° siècle” titulupean, “Manuscrits Occidentaux” sailean, Richelieu karrikako Bibliothèque Nationale-an bi zenbaki gehiago badira: 1997ko urriko 6 eta 7 garrenak.

Archives Nationaletan F 17/40224 sailean beharko zukeen haren “Palmes académiques” dozierrak. Ez dugu deus hatxeman. Ez eta F12 5323 5325 etan, hemen direlarik Kanpo arazoetako ministeritzatik aipamen hori ardietsi dutenak.

Goytino errientaren dozierra: ADPA 1 T 71.

Betachet: ADPA 1 T 48.

Elissamburu: ADPA 1 T 66.

Fraileen artxibotan orrialde bakar bat, bere postuen urteekin gehiagoko xehetasunik gabe

Aitaren berri bada mugazainen artxibotan ADPA 5 P 479.

Le Réveil Basque bada Pabeko herriko liburutegian. **Escualduna** aldiz Baionako apezpikutegian. **Le Progres**, L'UNION NOUVELLE eta LE GAULOIS los Angelesetako “Natural History Museum”eko liburutegian. Bainan ez kolekzio osoa hurbiltzekorik ere.

“ESKUAL HERRIA”ren mikrofilma bada, Baionako liburutegi munizipalean eta Euskaltzaindiarenean Bilbon.

Kalifornian izan dituen anzien berri, kaseta horietan, Los Angeles Times, Los Angeles Record:

- National Archives and Records Administration, Pacific Region (Laguna Miguel), Col.
- Superior Court Archives: Iudex, 1880-1921. 222 North Hill St. Los Angeles.
- District Court Archives: 222 North Hill St. L.A.
- California Historical Society Quarterly: “The French Press in California”. Clifford H. Bissell. 1960/V/39 (323-353).
- California Appellate Reports. Dec. 1906. J.P. Goytino.
- USA Census: 1900, 1910.
- Registrar-Recorder / County Clerk. 12400 Imperial Highway-Norwalk. CA 90650: Death, Birth, Marriage / DBA Notary.